

Aretxagazeta

• Aretxabaleta • 1996ko abenduak 19 • 112.zka. •

Alkohol bako gabonak

Jabier Etxebarrieta: erreskate taldekoa

Leizargarateko aterpetxea

Gaztainuzketako mendi etxeak



GABONETAKO PROMOZIOA

MECAⁿ

ORAIN

Renault gamako kotxe berri bat erosteagatik,
eta ABENDUAN bakarrik


MECAk SUPER FINANZIAZIOA! emango dizu
%5,9 T.A.E. 12, 24, 36, 48 eta 60 hilabetetan

MECA



RENAULT

Kotxe berrietan aukera zabalagoa. Kilometro bakoetan, ia berrietan eta erabilietan



Oparirik jasotzen duzu gabonetan?

*Asier Unanue
(Ikaslea)*

Bai, Olentzerok ekarriko dit oparia gabonetan. Oraindik ez dut eskutitza idatzi baina karameloak eta motor txikia eskatuko diot.



*Emilia Fernandez
(Etxekoandrea)*

Bai, egiten ditugu opariak. Normalean Olentzerotan egin izan ditugu umeez jolasteko aukera gehiago izan dezaten.



*Olaia Simon
(Ikaslea)*

Bai, Olentzerotan eta erregenetan jasotzen dut oparia normalean, baina ohitura haundiagoa daukagu erregenetan egiteko. Musika kataia eskatuko dut.



*Migel Angel Corres
(Langilea)*

Bai, erregeak. Hiru dira eta gehiago ekartzen dute. Oraindik ez dut eskutitza idatzi baina badaukat denbora.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

ZORIONAK "UDAK 50 URTE"

LIBURUAREN EGILEOI

Zorionak seikote egin duzuen lan bikainagatik. Norberaren ongizateak eta aisialdiak gaur egun duen garrantziaz ulertezina bezain pozgarria egin zaigu zuen lana eta fruitua. Sorpresaz harrapatu gaitu.

Zenbat denbora eskeini diozue? Zenbat urte?

Zenbat ate jo dituzue?

Zenbat denbora kendu diezue zuen lagun eta familiei?

Zerk motibatu zaituzte?

Datu hauek ez dira liburuan ageri, gainera hobe ez jakitea. Nork ebatu bestela hurrengo erronkari?

Gasiteok ideia eta asmo asko izaten omen dituzue baina gauzatzerakoan... traba ugari.

Liburu hau eskuartearen duenak ezin du horrelakorik esan.

Eskerrikasko herriari egin diozuen opariagatik.

ZORIONAK GAZTEOI.

UDAzaletuak eta beste atxabaltar batzuk.

Oporrak hartzera goaz. Hurrengo Aretxagazeta urtarrilaren 9an izango duzue zuein artean. Ordurarte, ondo-ondo pasatu eta urte berria hobeto hasi.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltea. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

Gabonetarako ekintzak Aretxabaletako abesbatza eta Leizarra musika eskolaren eskutik

Gabonetarako egitarau polita antolatu dute Aretxabaletako abesbatzak eta Leizarra musika eskolak. Gabonetako giroa musikaz alaitu gura izan dute eta horretarako hainbat kontzertu eskainiko dituzte: musika eskolako ikasleen kontzertua, Mariatxen Urkia sopranoaren kontzertua piano eta koruz lagundurik eta Katuska zarzuela.

Ikasleen kontzertua

Bihar, abenduaren 20an, Leizarra musika eskolako ikasleek Aretxabaletako abesbatzarekin batera kontzertua eskainiko dute Aretxabaletako parrokiari, arratsaldeko 5,30etan. Eskola sortu zenetik 10 urte bete diren honetan, 233 ikasle eta 17 irakasle daude musika eskolan. Kontzertuan ondorengo instrumentuek joko dute: flauta, klarineta, saxofoia, fliskornoa, tronpetak, tronboia, gitarra, akordeoia, pianoa, perkusioa, txistua, trikitixa eta panderoa. Hau guztia dantzaz eta kantu koralez lagundurik.

Sopranoa, piano eta koruz lagundurik:

Natibitate egunez Mariatxen Urkia sopranoak kontzertua emango du piano eta abesbatzak lagundurik Andra Mari parro-

kian arratsaldeko 7,30etan. Kontzertuan Mariatxenek hainbat kantu eskainiko ditu, horien artean baita gabon kanta batzuk ere. Pianoaz laguntzen Leire Zuazubiskar egongo da, gaur egun Leizarra musika eskolako Kantu koraleko eta Musika lenguaiaiko irakaslea dena. Honez gain Aretxabaletako abesbatzak lagunduko du kontzertuan Angel Barandiaranen zuzendaritzapean.

Katuska zarzuela:

Abenduaren 29an Aretxabaletako abesbatzak eta Leizarra Musika Eskolak elkarrekin antolatutako azken kontzertua eskainiko dute: "Katuska" zarzuela hain zuzen ere. Andra Mari parrokiari izango da arratsaldeko 7etan.

"Katuska", Pablo Soroza-balek sortutako opereta bat da. Solozabalek hainbat zarzuela idatzi zituen bere bizitzan zehar.

"Katuska" zarzuelan solista askok hartzen dute parte, baina Aretxabaletan emango den kontzertuan lau solista izango ditugu: Mariatxen Urkia, M^a Carmen Etxeandia, Iñaki Goñi eta Aitor Kami-ruga. Hauez gain, orkestra eta Aretxabaletako abesbatzak ere parte hartuko dute zarzuela honetan.



Mariatxen Urkia sopranoak eskainiko du kontzertua

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIAK

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina



Itxura hau erakusten du Aretxabaletako institutoko atzekaldeak

Lur-jausi berriak eragozteko obrak laster hasiko dira Institutuan

□ Hezkuntza saila arduratu da obren finantziazioaz

Aurreko asteetan izandako euriteen eraginez, Aretxabaletako Institutoko atzekaldean lurra behera etorri zen, kafetegia eta kirol instalakuntzak kaltetuz. Orain urtebete ere, beste lur-jausi batek lehen abisua eman zuen baina ingurua garbitu eta lehengoetan gelditu zen.

Egoera hobeto aztertzeke, udal-etxeke eta Hezkuntza saileko aparejadoreek lur-jausia gertatutako ingurua aztertu zuten. Lur horiek eusgarririk ez dutela kontutan hartuz, ingurua egoera kezkagarrian zegoela ikusi zen eta lehenbailehen zerbait egin beharra zegoela.

INGELAN S.L. enpresak lurraren ikerketa sakonagoa egin zuen ondoren. Arriskua horren kezkagarria ez zela adierazi zuen. Hala ere, lur jausi gehiago gerta ez daitezen lur horiek

eusgarria behar dutela adierazi zuen. Momentu honetan enpresa hau obren proiektua egiten ari da.

Arazo garrantzitsuena finantziazioarena izan da. Arlo honetan udal-etxea, Institutoa eta Hezkuntza saila akordio batera iritsi dira eta Hezkuntza sailak beregain hartu du obren finantziazioa. Udal-etxea garbiketaz arduratuko da eta baita obren jarraipen eta kontrolaz ere.

Pablo Txintxurreta, Institutoko zuzendariaren adierazpenetan hartutako erabakia 3 aldean akordio bateratua izan da eta alde horretatik udal-etxeak eta Hezkuntza sailak sensibilizazio handia erakutsi dutela gehitzen du.

Lur-jausi berriak eragozteko obrak laster hasiko dira. Hartziko horma eta drenajea egingo dira eskolaren atzekaldean.

Grafiti ikastaroa

Aretxabaletako gaztetxeak grafiti ikastaroa antolatu du. Ikastaroa 30 ordutakoa izango da eta gaztetxean bertan emango da. Prezioa 3.000 pezetatakoa da, gaztetxeke bazkideentzat % 25 merkeago. Urtarrilaren 4an hasiko da eta urtarrilaren 2an ikastaroaren inguruko bilera egingo da. 10 plaza bakarrik daude eta apuntatu gura izan ezkerro gaztetxean egin daiteke abenduaren 31a baino lehen 3retatik 4etara bitartean.

Bertsozale elkarteko bazkide kanpaina

Euskal Herriko bertsozale elkarteak Euskal Herri mailako bazkide kanpaina jarri du martxan. Bertsozale elkarteko bazkide egiteko badira arrazoi desberdinak: bertsolaritzaren aldeko apustua egitea euskararen aldeko apustua egitea delako, bertsolaritzaren inguruan antolatzen diren ekintza garrantzitsuek jarraituko dutelako, telebista irratietan programak, Bertsolari txapelketa..., euskeraren aldeko aukera on bat egiten jakitea delako.

Guzti honegatik Bertsozale Elkarteko bazkide egin gura ezkerro telefono honetara deitu daiteke: 71 63 55 (Itziar). Honez gain Loramendi elkartean ere lortu daiteke informazioa.

EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...
Enpresendako promozio bideoak.
Eskola eta Elkarteendako promozioak eta ekintza bereziak.
Etxeetan grabatutako bideoen muntaiak.
Otalora 15 • ARETXABALETA •
Tfnoa: 79 78 37

TXIMAK ileapaindegi mistoa

•••••
Herriko Plaza, 5 - behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA


EGUZKI GRAFIK
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791814
Faxa: 792911

ARETXABALETA

Alkoholaren gehiegizko kontsumoaren sensibilizazio kanpaina martxan jarriko du Udalak

- Abenduaren 24 eta 31an alkohol bako edarien eskaintza egingo da tabernetan
- Alkoholaren kontsumo adina atzeratzea eta alkohol bako edariak bultzatzea du helburu



“Norberak kontrolatu behar du alkohola eta ez alkoholak norbera” da kartelak bidali gura duen mezua

Aretxabaletako gizarte zerbitzuak “Alkoholik gabe zure martxaren jabe” lemapean, alkoholaren gehiegizko kontsumoaren inguruko sensibilizazio kanpaina martxan jarriko du gabonetan.

Abenduaren 24 eta 31an burutuko den kanpaina honen helburua, alkohola duten edarien kontsumo adina atzeratzea eta alkoholik bako edariak bultzatzea da.

Gaur egungo Euskal gizartean astebukaeretakoa alkoholdun edarien gehiegizko kontsumoa nabarmena da gazteengan, eta kontsumo hau gero eta gazteagoetan ikusten da gainera. Gaur egungo bizitza estiloaren barruan aisialdiko erlazio sozialak alkoholaren kontsumoaz erlazionatzen dira.

Bi hartu eta bat ordaindu

Gazteengan errealitatea den egoera hau ikusirik Aretxabaletako gizarte zerbitzua herriko tabernarekin harremanetan jarri da. Horrela, abenduaren 24 eta 31an eskaintza berezia egingo dute Aretxabaletako taberna batzuk ondorengo edarietan: “zumito”, Kas, Pepsi, mosto. Edari hauek erdi prezioan emango dira, bi hartu eta bat ordaindu. Kanpaina honetan Arlutz, Izotz, Urbatz, Haizea, Ezkutu, Bodega Riojana, Txiki bar eta Gaztetxeak hartuko dute parte.

Kanpainari laguntzeko komiki bat ere egin da, tabernetan jarriko da ikusgai.

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

Industriaren alde
Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Artano
Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA



TABERNA-BERRI
JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA



Liburu azoka

Gabonetan ohi moduan Loramendi Elkarteak liburu azoka jarriko du abenduaren 22tik 24ra bitartean. Euskal kulturaren inguruko hainbat liburu eta diska egongo dira azokan baita Durangoko azokan aukeztutako nobedade batzuk ere. Umeei zuzendutako liburu eskaintza zabala egongo da. Honez gain, liburuaren inguruan informatzeko pertsona egokiak egongo dira azokan.

Giza baloreen astea

“Munduan gatazka ugari. Guk ere baditugu...” lemapean Kurtzebarri eskolak, giza baloreen astea lantzen dihardu astelehenean hasi eta eguakotxa bitartean. Aste honen helburua egoera gatazkatsuetan oinarrituz erreflezioa bultzatzea eta ikasleekin konponbideak bilatzea da.

Ekintza desberdinak antolatu dituzte horretarako: Damaso Zuazuak emandako Zaireko egoera eta Bukavu proiektuaren inguruko hitzaldia, Bukavu proiektuarendako bideratuko den dirua batzeko itxulapikoa, ginola eta antzerkia, taldekako egoera gatazkatsuen azterketa eta hauen inguruko muralak...

Intsumiso eguna euripean

Euripean ospatu zen zapatuan Aretxabaletako talde antimilitaristak antolatutako Intsumiso eguna. Eguraldi txarra zela eta Loramendiren lokalean egin zen sagardo eta gazta dastaketa. Bazkaltzeko 23 lagun elkartu ziren Urbaltz elkartearen. Arratsalderako antolatutako bolo txapelketan 30 lagunek hartu zuten parte. Finen ibili zena Joseba Lopez de Armentia izan zen, gazta eta txapela jaso zituen. Manifestazioan lagun askok hartu zuen parte eta baita gauean Nahi eta nahiez eta Berri txarrak taldeek Ezkutun eman zuten kontzertuan.

Berbari hitzarmeneko batzar orokorra

Gaur arratsaldean, abenduak 19, Berbari hitzarmeneko batzar orokorra egingo da arratsaldeko 7etan Loramendiren lokalean.

Sukaldaritza begetariano ikastaroa

Loramendi Elkarteak Tril emakume taldeak sukaldaritza begetariano ikastaroa antolatu du. Silvana Huegun izango da sukaldaria eta gertatuko duen menua ondorengoa da: barazki hojaldrea, berenjena beteak eta postrea. Abenduaren 23an izango da arratsaldeko 3,30etan Muru Alde elkartearen. Joan gura izan ezkerro lasai azaldu bertara.

Baserriz-baserri kantuan

Abenduaren 24an baserriz-baserri kantuan joateko deialdia egiten du Ortzadar Atsedeen taldeak. Goizeko 9etan trikitilarien laguntzaz irtengo da plazatik. Hamarretakoa Matikuan egingo da eta Urbaltz Elkartearen bazkaria egongo da nahi duten guztientzat. Baserritar jantzita joatea eskatzen da eta adin guztiei zuzenduta dago.

Mendiko argazki zaharren erakusketa

UDAKo 50. urteurrenaren barruan Murruxiko eta Zاراia mendi taldeen eskutik mendiko argazki zaharren erakusketa ikusgai egongo da Loramendiren lokalean abenduaren 25etik urtarrilaren 1a bitartean.

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



Iparragiire, 4 Tfnoa.79 21 24

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURIUAK

Euskadiko Kutxa Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

Zinea

Abenduaren 20, 21, 22, 23

TIEMPO DE MATAR

Abenduak 22 (umeentzat)

CASPER

Abenduaren 27, 28, 29, 30

JOVENES Y BRUJAS

Abenduak 29 (umeentzat)

UN LOCO A DOMICILIO

Urtarrilak 3, 4, 5, 6

EN EL NOMBRE DEL HIJO**Ordutegia:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

**TIEMPO DE MATAR****EEBB 1996**

AKTOREAK: Sandra Bullock (Ellen Roark), Samuel L. Jackson (Hailey), Matthew McConaughey (Jake Brigance), Kevin Spacey (Rufus Buckley), Brenda Fricker (Ethel Twitty), Oliver Platt (Harry Rex Wonner)...

ZUZENDARIA: Joel Schumacher.

Bi gizonezko zuri 10 urteko neskatila beltza jipoitu eta bortxatu dute. Poliziak berehala atxilotu ditu. Hala ere, biktimaren gurasoak (Haley) bere alaba mendekatuko du bi bortxatzaileak tiroz hilda. Baina zerikusirik ez duen beste lagun bat ere zauritu du. Haleyren defentsaz abokatatu gazte eta apal bat arduratuko da, Jake Brigance hain zuzen.


“Tiempo de matar” emozio bako pelikula plano dugu, eta gainera ideologikoki erabat kontserbadorea, arrazismoa eta Ku Klux Klan biziki erasotzen baditu ere.

Oharra: Gabon eguna, Natibitate eguna, gabon zahar eguna eta Urteberri egunean ez da zinerik egongo. Urtarrilaren 3an hasiko dira osterako proiektzioak.

T
X
i
L
A
R
R
A**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAETA

**LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE**


HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**Aholkularitza**

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

JOLAS LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaléta

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



Biztanle ugari Urkulun (2)

Azkenengo Aretxagazetan, aurkezturiko gaiari jarraiki, Urkuluko hegazti akuatikoei buruzko hainbat xehetasun aipatzera noakizue segidan. Ahate hauek garai honetan Urkulun ditugunak dira bakarrik.

AHATE MOKOZABALA (*Anas Clypeata*)

Gaztelaraz: Pato cuchara

Luzera: 48-50 zm **Pisua:** 700-1050 kg.



Papar zuria duen ahate marroi honen izena bere moko bereziak ematen dio. Moko haundi hau, ur gainean aurkitzen dituen hazi eta animalia txikiak filtratzeko bereziki egokiturik dago. Sedentarioa da Urkulun.

BASAHATEA (*Anas platyrhyncha*)

Gaztelaraz: Anade real

Luzera: 58-62 zm **Pisua:** 1250-1350 kg.



Buru berde iluna du eta papar marroia, bien artean kollar zuria agertzen duenari. Ur ertzetako landare eta animaliez elikatzen da eta horregatik sarri ikusiko duzue irudian bezala murgilduta ipurtaldea kanpoan daukalarik. Urkulun urte osoan ikus daiteke.

MURGILARIA (*Anthya ferina*)

Gaztelaraz: Porrón común

Luzera: 44-46 zm **Pisua:** 400-700 kg.



Buru marroia, gorputz gris argia, eta papar eta buztanalde beltzak dituen ahatea dugu hau. Aurrekoak ez bezala, honi ur sakonetako landareak gustatzen zaizkio eta murgiltzeko teknika ongi garatu du. Hortik datorkio izena. Ez da sedentarioa.

MURGILARI MOTTODUNA (*Anthya fuligula*)

Gaztelaraz: Porrón moñudo

Luzera: 42-44 zm **Pisua:** 600-700 kg.



Murgilariaren lehengusua izanik, hau ere ahate buzeatzailea dela esan beharra dago. Sabelalde zuriaren gainean, buru, bizkar, papar eta buztan beltza nabari zaizkio. Ezin aipatu gabe utzi izena ematen dion motots beltza ere. Negu parteko bisitaria dugu hau.

UROILO NAGUSIA (*Fulica atra*)

Gaztelaraz: Focha común

Luzera: 35-37 zm **Pisua:** 350-400 kg.




Frontala eta mokia zuriak dituen uroilo beltza dugu hau. Emea, arra bezalakoa da. Beste hau ere murgilari trebea da, izan ere ur sakonetako hazi eta sustraiez gain larba, krustazeo eta arraintxoak ere jaten baititu. Espezie sedentarioa dugu Urkulun.

Jabier Etxebarrieta

Euskal Mendizale Federakundeko erreskate taldekoa

Jabier Etxebarrieta orain 2 urte Euskal Mendizale Federakundeko partaide egin zen. Taldean sartu aurretik proba batzuk pasatu behar izan zituen, korrikan, eskalada librean, erreken jeitsieran... eta geroztik hainbat kurtso teoriko eta praktiko egin ditu. Mendia gustatzen zaiolako eta mendiaren inguruko gaietan ezagutza haundiagoa izateko sartu zen erreskate taldean.



• Jabier, noiz sartu zinen Euskal Mendizale Federakundeko erreskate taldean?

Orain bi urte sartu nintzen. Mendia gustatzen zait eta arlo honetan ezagutza haundiagoa izan nahi nuen eta bide batez mendian gerta daitezkeen ezbeharretan parte hartu.

• Nola sartu zinen?

Taldean sartu aurretik proba batzuk egin behar izan genituen, korrikan, eskalada librean, erreken jeitsieran...edozein ezin baita erreskate taldeko partaide izan. Mendiko kirol desberdinetan ezagutza eta esperientzia maila bat eskatzen da.

Proba pasatu ostean kurtso teoriko eta praktikoak egin ditugu.

• Zer ikasi zenuten kurtso horietan?

Benasquen, Goi mendiko eskolan kurtso intentsibo bat egin genuen lehenengo udan eta baita neguan ere. Bertan, orientazioa, sokak nola erabili, kamila, norbere erreskatea, hormetako erreskatea, helikopteroz erreskatea... ikasi genituen. Negukoan berriz, elur jauziak, korredore elurtuetako erreskatea...

Azken finean mendian gertatu daitezkeen istripuetan nola erantzun.

• Zenbat erreskatetan hartu duzu parte?

Hiru erreskatetan hartu dut parte, galdutako jendea topetan batez ere eta arrakastatsuak izan dira, bat ezik.

• Nola funtzionatzen du mendiko erreskate taldeak?

Guri SOS deiatik etortzen zaizkigu abisuak. Hiru talde gara, bakoitzean 5 lagun: medikua, sokorrista eta 3 erreskatatzaile. Baldintzak oso teknikoak direnean joaten gara normalean, norbait galdu denean esaterako. Bestalde, erreskatea helikopteroz edo arinago egin

ahal bada, helikopteroz egiten da.

Momentuz Euskal Herri mailan funtzionatzen du taldeak, baina gure lana urrunago zabaltzeko asmoa daukagu, Pirineotara esaterako.

• Ze finantziario mota du erreskate taldeak?

Gure lana dohainekoa da. Eusko Jaurlearitza dirulaguntza jasotzen du, eta hau talderako materiala erosteko eta gure formazio ikastaroetarako erabiltzen da.

• Erreskate baterako abisua helduz gero eta lanean egonez gero zer gertatzen da?

Erreskate baterako deia heltzen zaigunean lanetik irtetzeko baimena daukagu. Jakinaren gainean daude lantegiak.

• Erreskate taldeek ordaindutakoak izan behar ote duten edo ez eztabaidak ere sortu dira. Zer iritzi duzu horren inguruan?


Hori logikoa dela uste du askok. Gure taldean iritzi desberdinak daude. Nire ustetan ez litzateke ordaindutakoa izan behar. Profesionala izan ezker, ondo iruditzen zait. Suizan esaterako erreskate talde profesionalak daude eta erreskate onak egiten dituzte, asko arriskatu. Gu ez gara profesionalak eta ahal duguna egiten dugu.

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA




ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30



Mendian segurtasuna: mendian disfrutatzen ikasi, istripuei aurrea hartuz

Ingurune menditsuan bizi gara eta mendira joateko joera handia da gure artean, bai inguruko mendietara eta baita urrunagokoetara ere, Pirineotara esaterako.

Leku zoragarria da mendia, baina hemen ere zuhurtasunez jokatzeko jakin behar da, mendiaz ahalik eta gehien disfrutatu eta gerta daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko. Segurtasunak abentura bere osotasunean bizitzeko aukera emango digu.

Beste kirol batzutan moduan, mendira joateak ere esfortzu bat eskatzen du, bihotza eta gorputza limitean jartzen dira sarri. Normalean iraupen luzekoa eta intentsitate handikoa da mendian egiten den esfortzua. Fondo, eta flexibilitate prestakuntza egoki batek, lesiorik gerta ez dadin lagunduko du.

Mendiko segurtasunaz berba egiten dugunean, bi eratakoa izan daiteke: mendizalearen esku dagoena eta kanpo faktoreek eragindakoa bestetik. Mendian gertatzen diren ezbeharren kasuan, % 80a mendizalearen faktoreek eragindakoa da, gainontzekoa kanpo faktoreek (eguraldiak, mendia egoera...). Kasu askotan prestakuntza fisiko kaskarra eta bere burua lar baloratzean gertatzen dira istripuak. Prestakuntza fisiko egoki batek, norbere indarraren mugak non dauden eta noraino iristeko gai garen jakiteak, elikagai egoki batekin batera mendiaz disfrutatzen lagunduko du. Hobe da aurrea hartzea gero konponbidea bilatzea baino. Baina kontutan izan edozein larrialditan 088 telefonora deitu daitekeela.

Mendian ibiltzeko zenbait gomendio

Mendiaren inguruan eman daitezkeen gomendioak asko dira. Teoria eta praktika urrun gelditzen dira sarri, baina jakinaren gainean egotea hobe da beti. Hona hemen horietako batzuk:

Oinetakoak: Mendirako botak dira oinetako egokienak, botak oina ondo babestuko baitu eta orkatila ondo lotuta eramango da. Botak erosterakoan egunaren bukaeran egitea da onena, orduan oina bere hartan egoten baita. Botak eroso eduki behar dira.

Oinetako zauriak: Galtzerdia tolesten denean edo oso handia denean egiten dira oinetan zauriak: babak... Oinetako zauriak ez gertatzeko bi galtzetin eramatea komeni da. Lehena fina izango da, hankari ondo lotuta doana eta azalaren ordeko moduan egingo duena. Gainekoa lodiagoa.

Motxila: Motxila asko aldatu da diseinuan. Gaur egun gero eta motxila erosoagoak egiten dira. Motxila, bizkarretik ahalik eta gertuen eraman behar da. Motxilaren grabitate zentrua eta gurea leku antzekoan geldituz. Sakua behean eramango da. Erdian pisutsuena eramatea komeni da. Goian berriz gauza arinak. Motxilatik kanpora berriz, ahalik eta gutxien eramango da, arriskutsua izan daiteke eta.

Edaria: Mendian ur asko galtzen da eta ondo hidratatu behar da. Sarritan edatea komeni da, baita egarririk ez dagoenean ere.

Janaria: Mendirako, beste kiroletarako moduan karbono hidratoak garrantzitsuak dira: fruitu lehorrak, txokolata, galetak, pastak, arroza, patata...

Horregatik komeni da ondo elikatzea, bai mendian bertan eta baita lehenago eta ostean ere.

Botikina: Mendira botikina eramatea komenigarria da: tiritak, benda, espadatrapo, antiseptiko, eta bakoitzak beharrezkoak ikusten dituenak.

Mendira irteera egitean, zein kirol mota egitera goazen eta mendiak dituen ezagueriak kontutan izan beharko dira. Nolako egoera, halako irtenbidea bilatu beharko da. Badugu mendiaz gozatzeko aukerarik baina norberaren indarraren mugak noraino heltzen diren kontutan izanik ibili beharko dugu.

Gaztainuzketako mendi etxeak

Leintz Gatzagako garapen plan orokorraren barruan

Orain hilabete inguru zabaldu ziren Gaztainuzketako mendi etxeak edo bungalowak.

Leintz Gatzagako Udalak bere garapen planaren barruan alojamendu gune baten beharra ikusten zuen. Horrela, 1994. urtean udaletxeak Gaztainuzketako proiektu honi ebatu zion. Gaur egun zazpi bungalow egin dira Gaztainuzketan, naturaren erdi-erdian.

Leintz Gatzagako txokobatean, pinudi eta pagadien artean kokatzen da Gaztainuzketa izeneko parajea. Naturarekin harremanetan, 630 mtako altueran dago, han eta hemen Ullibarriko urtegira doazen errekatxoek zeharkatzen dutela. Leku horretan kokatzen da hain zuzen ere Gatzagako Udalak martxan jarri duen proiektu berria: Gaztainuzketako mendi etxeak. Azken urteotan Gatzagako Udalak landu duen garapen planaren barruan sartzen da alojamenduen eskaintza hau.

Gatzagako udalaren iniziatibaz

sortutako proiektua bada ere, bikote batek darama mendi etheen explotazioa. Oraindik hilabete pasatu da zerbitzua martxan jarri zutenetik baina zerbitzua martxa onean dela azaldu dute Lorenzo Larrañaga eta Montse Valerio senar emazteek. "Konstituzioko zubian denak okupatu ziren". Azaldu digu Montsek. Deba Garaitik eta Gasteiztik hurbildu zaie jende gehiena baina Murtzia eta Almeriako jendea ere izan dute. "Ingurukoa izan da etorri den jendea, lagun koadrila gazteak batez ere".

Esperientzia berria

Lorenzo eta Montse Gaztainuzketan bizi dira. Alojamen du zerbitzuaz ardurartzeaz gain taberna eta jatetxeko zerbitzua ere beraiek daramate, garbiketa lanetarako beste laguntzaile bat badute ere.

Jatetxeko esperientzia lehenagotik ere bazuten, gainontzekoa berria izan da eurentzat. Hasiara baten beldurra bazuten ere gogoz ebatu diote proiektu berriari. "Jendea gustora etortzen dela ikusi dugu eta horrek asko animatu gaitu. Bezeroak hotel batean baino tratu gehiago du gurekin eta aldi berean independentzia haundiagoa ere badago, norberak bere etxea du eta".

Saso baxuan zabaldu dute zerbitzua, egon daitezkeen akatsak ikusi eta hauek lehenbailehen konpontzeko. Hasiara besterik ez da oraindik eta gauza asko gelditzen dira egiteko. Alojamen du ezagutzera emateaz gain, turistek eskaintzeko proiektu gehiago jarri nahi dituzte martxan.



Gatzagako bide zaharretik berrira sartzeko stopean eskumatara hartuta helduko gara Gaztainuzketara.

Zazpi mendi etxe

Gutzira zazpi txabola daude Gaztainuzketan. Egurrezko txabolak dira eta 36 lagunendako kapazitatea eskaintzen dute gutxi gorabehera. Bakoitzean 2, 4 edo 6 pertsona sartzen dira. Bungalow bakoitzak sukaldea, egongela, logela (1 edo 2), bainugela eta berogailua du. Honez gain premiazko beharrendako denda, erropa garbitzeko zerbitzua eta jatetxea ere badago.

Pertsona eta eguneko prezioa 2.500 pezetakoa da eta umeena berriz 1.500 pezeta.

Alojamendu mota hau ez da oso ezaguna gure artean. Iratin, iparraldean eta Frantzia aldean badira horrelako esperientziak. Gatzagako Udalak zerbitzu zabala eskaintzea gura zuen eta alojamendu mota hau egoki ikusi zuen horretarako.



Leintz Gatzagako garapen plana

Gaztainuzketako mendi etheen proiektua Leintz Gatzagako garapen plan orokorraren barruan sartzen da. Orain urte batzuk Gatzagako udalak herria ekonomikoki berpizteko garapen plana abian jarri zuen. Enplegu lokala sortu eta turismoa promozionatzearen aldeko apostua egin zuen.

Azken urteotan aldaketa asko izan ditu Gatzagak garapen plan honen barruan. Horietan nabarmenena herriko etxeak berritzea izan da, herriari itxura berria emanaz.

Honekin batera, herria ekonomikoki berpizteko aktibitate berriak sortu dira: artisautza bultzatu da, zeramika eta larrugintza enpresak sortuz.

Turismoa promozionatzeko bide desberdinak hautatu ditu Udalak: Leintz Gatzagak duen baso aberastasuna zaintzeko eta txukuntzeko 125 urterako regenerazio plana martxan da. Honez gain, ibilbideak markatu

dira, karobiak berreskuratu eta atsedan lekuak ipini.


Plan orokor honi osotasuna emateko Gaztainuzketako mendi etheen proiektua dago, alojamenduen eskasia nabaria baitzen. Alojamen du mota honekin eskaintza ahalik eta zabalena ematea lortu nahi zutela dio

Eugenio Otxoa Gatzagako alkateak, “mendizale, pareja, koadrila, eskolako haurrak...jende mota desberdinengana iritsi nahi genuen”.

Guzti honen barruan bada beste proiektu interesgarri bat ere. Datorren urtearen hasieran abian jarriko da herriari izena eman dion eta ertaroan gune ekonomikoki garrantzitsua bihurtu zuen “Gatzaren eko-museoa”.

Lehengo dorla zahar bat martxan jarri nahi da, modu honetan poliki-poliki gatz fabrikaren ondare kulturala berreskuratzeko.

Alkatearen esanetan Gatzagako herria garapen prozesu bat jasaten ari da alderdi guztietan, urte luzetan bizi izan duen beherakadari aurre eginez. Gatzagako biztanleriak nabarmen egin du gora azken urteotan, 200 biztanle izatetik 250 izatera heldu da. “Ez da kopuru handia baina bai gurea moduko herri batentzat”- dio Otxoak- “bide onetik goazen seinale da hori”.



Gatz fabrika: kangiloi gurpila

Gabon kantak

Haur eder baten bila

Haur eder baten bila gabiltza zorutzen ta izarrak esan digu galdetzeko hemen. Jaungoikoaren herri, maite Jerusalem, esan zaiguzu laister Jesus nun jaio den

Jesus, Jesus jaio da Belenen Jesus jaio da goazen, goazen.

Artzai buru txuri bi, Anton eta Peru, Belengo estalpera etorri zaizkigu. Sartu dira barrena, Josutxorengana, eskaintza egin diote arkumatxo bana.

Jesus, Jesus jaio da...

Batek arkumia ta bestiak ardia; ondo konpontzen dira Jose ta Maria.



Belengo portalian

Belengo portalian ate zabaletan hotzak ikaraz dago Jesus lastoetan astoa ta iria dauzka aldamenian arnasaz berotzeko hoztutzen danian.

Alaken

Alaken, alaken, ala pikula tun paire, errespun dela pikula tunpa, Jesus Maria Jainkoa zen. Adiskideok! ikusi duzute zelai horietan, artzaina, artzain txiki, artzain haundi, artzain mutur leuna. Lo leri leo, goxo duk goxo, neguan etxe txokoa. Gaur jaio da, gaur, Jesus haurtxoa. Lo leri leo, hiru errege izar baten arrastoan, lo leri leo, tranka, trankatran, hirurak zaldiz ba doaz.



Ator, ator

Ator, ator, mutil etxera gaztaina zimelak jatera. Gabon gaua ospatutzeko aitaren ta amaren ondoan. Ikusiko dek aita barrezka amaren poz ta atseginez.

Eragiok mutil aurreko danbolinari. Gaztainak erre artean, gaztainak erre artean, txipli, txapla, pum! Gabon gaua pozik igaro daigun.



Gabon eguna

Gabon eguna heldu da Jesus jaio da Belenen goazen guztiok poz-pozik Jesus adoratzera.

Alaitasuna batetik abesti politak beti ohitura onak gurekin Euskal Herrian.

Makailu eder bixigu ardo eder ta sagardoa guztiok pozik igaro aita ta amarekin.

La la la la la la
La la la la la la (bis)
Eup!

Demetrio Iriarterena

Ai hau gauaren

Ai! hau gauaren zoragarria, Jesus jaio da Belenen, herririk herri bila gabiltza bila gabiltza beraren.

Aingeruak kanta artzai onak dantza guztiok alabantzak zuri zor dizugu, Astoak: A! Idiak: MU! Atsegina badugu.

Hartu makilak eta jantzi albarkak artzaiak joan ziraden Jesusen bila.

Ai! zer atsegina den dantzan jende guztia salto, brinko eginik denak joan ziran.

Olentzero

Olentzero joan zaigu mendira lanera intentzioarekin ikatza egitera. Aditu duanian Jesus jaio dela lasterka etorri da berri ematera.

Horra, horra gure Olentzero. Pipa ortzian duela eserita dago; kapoiak ere baditu arraultzatxoekin bihar meriendatzeko botila ardoakin (bis)

Olentzero buru handia entendimentuz jantzia bart arratsean edan omen du bost arroako sahagia oi urde tripaundia traralalala, traralalala (bis).

Atozte kristauak

Atozte kristauak, bihotzak pozturik atozte guztiak Belenera. Jaio den gure Jesus ikustera Jauna gurtu dezagun Jauna gurtu dezagun Jauna gurtu dezagun auzpezturik.

Ardiak utzita, datoz artzai onak zerutik deituak, estalpera goazen gu ere berakin batera. Jauna gurtu dezagun...

Gure maitasunez, askatxo batean otzik dardar zauden Jesus ona! Atoz gugana, haur goxo laztana Jauna gurtu dezagun...



Mesias sarritan

Mesias sarritan agindu zana Aingeru artian dator gugana. Gloria zeruan, pakia hemen kantari aingeruak dagoz Belenen. kantari aingeruak dagoz Belenen.

Belengo portalian negu gogorrian jaio da gure Jesus askatxo batian estalki barik dago abere artian guztiz altsua dana zeru ta lurrian.

Han dago gure Jesus, hantxe dago, bai, haurtxo txikia askan dago amak esautzo lo eiteko baina, haurtxoak begiakin esaten dio ama ezin.

Urte askuak aurrez igarleak esana jaio da abere etxian humil ta otzana. bere amak zirautzan O seme laztana! zu zera gure errege jabe eta Jauna.

Gabon gabon gabon

Gabon gabon gabon daukanak ez daukanari emon gabon gabon gabon eguberri on

Zerutik etorri zaigu Mariagatik sortua Gabon gabon...

Ardi bi ta lau bildots pitxar haundi bat esne sagar, intxaur ta gaztaina kolkua bete bete.

Gabon gabon....

Olentzero begi gorri

Olentzero begi gorri, fun, fun, fun (bis) inun ikusi al duk esan zaiguk, esan zaiguk ai Olentzero guria nun duk Belengo bidia, fun, fun, fun. inun ikusi al duk esan zaiguk, esan zaiguk sehaskatxoan jarrita Mariaren haur polita, fun, fun, fun.

Olentzero begi gorri

Olentzero begi gorri non harrapatu dek oilar hori txutxunapeko sagarpean txakurra lotan zegoenean. Olentzero begi gorri non harrapatu dek arrain hori sasiolako harkaitzetan bart gaueko hamaiketan.

Bikaina UDAko ekitaldi nagusia

- ❑ 86 lagun eta entitatek jaso zuten insignia edo oroigarria
- ❑ Abenduaren 24an Andoni Zubizarretak urrezko insignia jasoko du

Urte guztian zehar UDAREN inguruan hainbat ekintza burutu ondoren urtearen amaierara iritsi gara eta aurreko domekan ekintza nagusia egin zen Zaraia zineman. Ekitaldia bikaina izan zen, UDAko 50. urteurreneko ekintzak antolatzen ibili direnek UDazaleak, bazkideak, kirolariak... bildu gura izan zituzten bertan.

Mahaian eseri zirenak, Bixente Etxeandia, Juan Antonio Rodriguez alkatea, Mikel Uriarte Gipuzkoako Atletismoko Federazioko lehendakariordea, Jose Luis Arrieta Gipuzkoako Txirrindulari Federazioko lehendakaria, Manolo Duran Gipuzkoako futbol Federazioko arduraduna, Patxi Gaztamiza Gipuzkoako mendi Federazioko lehendakaria, Esteban Ugarte Gipuzkoako pelota Federazioko ordezkaria, eta Jose Olabe eta Eduardo Altube UDAko lehendakari ohiak izan ziren.

Aurkezle lanetan Asier Aranguren, Itxaro Zubillaga, Jokin eta Jon Antxia izan genituen. UDAko 50. urteurrenaren liburuaren aurkezpena egiten zuten bitartean 68 lagun eta entitatek jaso zuten insignia eta oroigarria. Horien artean hauek izan ziren:

Mendian: Mariano Otero, Felix eta Alberto Iñurrategi, Murruxio Elkarte eta Zaraia Mendi Taldea.

Txirrindularitzan: Angel Arrese,



UDAko lehendakari eta lehendakari ohiak insignia jaso zuten unea

Asier Guenetxea, Xabier Lazpiur, Pello Zubizarreta, Jose A. Arkauz, Juan A. Iturbe eta Dorletako Ama txirrindulari eskola.

Pelotan: Pablo Ezpeleta, Felix Elortondo, Ignacio Garcia-Etxabe, Juan M. Errasti, Jose San Migel eta Jesus Garcia-Etxabe.

Atletismoan: Ramon Jausoro eta Joseba Larrinaga.

Futboleko hamar denboraldi baino gehiago egindakoak: Jesus M. Antxia, Jabier Igartua, Eugenio Arriola, Isidro Vicente, Cesar F. de las Heras, Roberto Etxeandia eta Jon Arriola.

Lehenengo mailan ibilitako joka-

lariak: Bixente Etxeandia, Jesus Urkia, Jesus Uribealago, Jose Zaldua, Jabier Elkorro, Ricardo Muruzabal, Santiago Idigoras, Juanjo Diaz de Gereñu, Luis Mari Lopez Rekarte, Imanol Etxeberria, Roberto Olabe, Manuel Cervantes eta Andres Mugika.

Nazioarteko jubenilak izandakoak: Jose Mari Elkorro eta Pako Zabala.

Oinarrizko futbol mailan lana egin dutenak: Jose Luis Txintxurreta, Jesus M. Andres eta Angel Zubiria.

Lan desberdinak egin dituztenak: Nemesio Arkauz, Angel

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

Martín

RELOJERIA - DITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

Etxabe, Jose Luis Zubiria, Severiano Iturbe, Luis Guridi, Pello Unzueta eta Alberto Laskurain.

Almen ikastolak eta arbitroen eskolak.

Hamar urte baino gehiagoan zuzendaritzan egon direnak: Pablo Lizarralde, Eugenio Aretxaga, Jose Luis Arana, Jabier Igartua.

UDAKo himnoa egin zutenek ere jaso zuten: Demetrio Iriarte, Pablo Urkia, Juanito Arzamendi eta Jose Ramon Elkoru.

UDAKo presidente ohiak: Juan Luis Izagirre, Jose Urtubi, Anton M. de Agirre, Juan Antonio Garmendia, Deunoro Bengoa, Migel Igartua, Joxe Olabe, Roberto

Urreta, Jabier San Migel, Jesus M. Isasmendi, Alberto Arkauz, Eloi Uriarte, Jose M. Errasti, Iñigo Olabe, Manolo Zubillaga, Jose A. Etxebarriarteun, Martin Garai, Jokin Antxia, Eduardo Altube eta gaur egungo presidentea den Bixente Etxeandia.

Honez gain, Bixente Etxeandiak Euskal makila jaso zuen eta Joxe Olabek, urte askotan Gipuzkoako futbol Federazioko partaide izan delako, honen eta UDAREN eskutik plaka bat jaso zuen.

Ekitaldia bukatu ostean bazkaria egon zen Taberna Berri jatetxean. Urteurrena giro politean ospatu zuten bertara hurbildu ziren 186 lagunek.



Bixente Etxeandiak Euskal makila jaso zuen unea

UDAK 50 urte liburua

Aurkezpena egin ondoren salgai dago UDAKo 50 urtetako ibilbidea jasotzen duen liburua. Loramendi elkarteko liburu azokan egongo da salgai 1.000 pezetatan.

Andoni Zubizarretari urrezko insignia

Pasatu den domekan ezin izan zuen ekitaldi nagusira etorri eta horregatik abenduaren 24an arratsaldeko 3,45etan Andoni Zubizarretari omenaldia egingo zaio Ibarra futbol zelaian. Egun horretan preferente mailako UDA eta Mondra taldeen arteko derbia jokatu da. Urrezko insignia jasoko du Andonik UDA kirol elkartearen eskutik.



Ekitaldiaren bukaeran denak zutiturik eta Aretxabaletako abesbatzaren laguntzaz UDAKo himnoa abestu zen. Demetrio Iriartek konposatutakoa da himnoa eta hitzak Paulo Urkiarenak dira.

JOSU

HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Dorleta
Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

IBARRA
ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURIUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11



ARRASATE ERDIALDEKO
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Arrasate erdian, Deba Garaiko merkatalgunerik handiengan, erosketak izen propioa du.



Azaroaren 18tik
urtarrilaren 4ra arte
Arrasate erdiko 100
komertzio eta zerbitzuz
AUTO BAT dohainik
lortzeko aukera ematen
dizute.

Etorri eta egiazta ezazu!!!

Erdialdea bisitatzen duzunean
aparkalekua erabil ezazu.
Denok eskertuko dugu.


*Ikatza ez da
Gabon hauetan
jaso dezakezun
oparirik txarrena.*



LASAGABASTER

*Gabon hauetan ez dezazu imitaziorik onartu.
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*





UDAK 50 urteak bete dituen honetan Leixargarateko aterpetxeak 25 bete ditu. 1971. urteko irailaren 5ean inauguratu zen. UDAko mendi taldearen inizatiba izan zen. Gastuak erdibana egiteko Arrasateko Besaide elkar-terkoekin batera eraiki zen txabola.

Arrasatearrek txabola bakarra gura zuten baina atxabaltarrek arazorik ez egoteko bakoitzak berea egitea gurago izan zuten.

Julio Markaide arrasatearrak txabolaren planoak egin zuen eta Eibarko konstruktora bat izan zen eraiki zuena.

Lanak ordaintzeko Aurrezki kutxa munizipalean kreditua eskatu zen. Hau ordaintzeko herriko mendizale guztiek hartu zuten parte. Errifak salduz atera zen dirua, eta urtebete barruan dena ordainduta zegoen.

Hasieran txabola Degurixan egiteko asmoa zegoen baina arazo batzuk zirela eta azkenean erreztasun gehienak Alabita eta Degurixako tarte horretan aurkitu zituzten. Lur zati hori, Bolibarko Jausoro baserriko Inurtegitarra zen eta euren jarrera onagatik 1970.eko maiatzean hasi ziren obrak. Degurixa eta Leixargarate bitartean dagoen Bidebe iturritik hartu zen ura.

Obrak 1971ko udarte luzatu ziren, inaugurazio ekitaldia berriz urte horretako irailaren 5ean egin zen. Aretxabaleta, Arrasate eta inguruko jende asko hurbildu zen Leixargaratera eta giro politean ospatu zuten eguna.

Ordutik aldaketa asko izan ditu, atzekaldeko muna garbitu zen, erreteila berria egin eta azken urteotan ere hainbat hobekuntza egin dira. Jose Luis Arana "Gatza" k urte luzetan zehar aterpeko ardura eraman zuen. Gaur egun Murruxiko arduratzen da aterpeaz baina UDARENA da.

Datorren abenduaren 29an txabolaren 25. urteurrena ospatuko dute Murruxikoek eta luntxa egongo da bertara inguratzen direnentzat. Egun horretarako beste berrikuntza bat ere egingo dute txabolan, argia sartuko da. Eguzki indarra batuko duten plakak jarriko dira.



Leixargarateko aterpetxea, 25 urte zutik

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**KIXKOR
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

Horra, horra!



M.J. Aretxaga

Aspalditik dugu herrian kanturako joera, koruaren ibilbidea jarraitzea besterik ez dago. Dana dala, norbaitek zalantzaren bat baldin badu, hilaren 25ean edo 29an zalantza horiek baztertzeko aukera izango du. 25ean kontzertua eskainiko du **Mariatxen Urkia** sopranoak eta 29an Mariatxen berak eta **M.^a Karmen Etxeandia** kontraltoak hartuko dute parte Katiuska operetan.

Baina azken bolada honetan musikari trebeak ere baditugula ikusi da. 1996ko Gipuzkoako akordeoi lehiaketan emaitza ikusgarriak lortu dituzte gure soinu-joleek. **Luis Mari Elkorobarrutiaren** ikasleek esaterako, bakarkakoetan "A" mailan **Leire Lozano** eta **Nerea Trigok** zilarrezko domina eskuratu zuten. Iniziazio "A" delakoan, **Mikel Igartua** eta **Amaia Gorostizak** ere zilarrezkoa. Musika de Camara "B" kategorian urrezko domina eskuratu zuena ondorengo bozkotea izan zen: **Oihana Arejolaleibar**, **Idoia Zilaurren**, **Izaskun Gabilondo**, **Arantzazu Arietaleanizbeaskoa** eta **Ekaitz Oihanguren**. Baina

beste boskote batzuk ere fin ibili ziren: **Janire Davila**, **Larraitx Antxia**, **Irati Urzelai**, **Nagore Custodio** eta **Ione Lezetak** zilarrezkoa lortu zuten. Azkenik ondorengo boskoteak urrezko domina lortu zuten: **Aiora Filarmendi**, **Nerea Arrese**, **Lorea Lasagabaster**, **Aitziber Kintanila** eta **Alex Herranz**.

Juan Jose Orobengoaren neska-mutilak ere fin ibili ziren. Zertameneko infantil kategorian **Ainara Jorge** laugarren gelditu zen. Jaialdian berriz, urrezko domina eskuratu zutenak: **Alexander Azkargorta** eta **Amaia San Migel** izan ziren. Zilarrezkoa berriz, **Amaia Arana**, **Amaia San Vicente**, **Leire San Vicente**, **Ane Goikoetxea**, **Oier Bernal**, **Merixel Armentia** eta **Uxue Zamaloak** jaso zuten.

Astebukaeran ere mugimendu dexente egon da. Zapatuan **Intsumiso eguna** ospatu zen eta, nola ez, holakoetan euria egin behar. Dana dala ez ziren horregatik beldurtu intsumisoak eta pozik ibili ziren kalean gora eta behera. Gauerako atertu egin zuen eta ez dakit horregatik ala Ezkutun "Nahi ta nahiez" eta "Berri txarrak" taldeek jo zutelako, jende asko bildu zen. Egunari probetxu gehien atera ziona **Joseba Lopez de Armentia** izan zen, bolo txapelketa irabazi baitzuen eta gaztaia eta txapela eraman zituen. On egin!

Eta zapatuan intsumisoak izan baziren domekan UDakoek hartu zuen lekua. 50. urteurreneko ekitaldian aurpegi ezagun asko ikusteko aukera egon zen. Ondo pasatu zuten guztiek bai zinean eta baita bazkarian ere. Dagoeneko gutxiago gelditzen da 100.erako.

Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Arraindegi ala arraindegia?

Nerea Euskerajatorregiren arlo honetarako proposamen berriak behar ditugu. Zuk ere hartu dezakezu parte kalean entzuten diren akatsak eta gomendioak guri esanez. Horretarako deitu Loramendi Elkartera, 77 09 70 telefonora, edo bertara etorri bestela.

Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskerak elkartea



JOSE RAMON SOROIZ

“Antezlanetan ematen dudana baino ixilagoa eta lotsatiagoa naiz”



Legorretan jaio zen Jose Ramon Soroiz aktore ezaguna baina gaur egun Donostian bizi da. Telebista eta antzerki munduan ikusi dugu sarri, beti ere, komedia estiloko lanak egiten. Makina bat barre eragin digu, baina bere esanetan ematen duena baino ixilagoa eta lotsatiagoa da.

• Zenbat emanaldi egin dituzue “El florido Pensil” antzerkiaz?

Otsailean egin genuen aurkezpena eta ordutik 100 emanalditik gora egin ditugu. Oso arrakastatsua izan da.

• Noiz hasi zinen antzerki munduan lanean?

Orain 24 bat urte. Donostiara joaten nintzen astebukaerak pasatzera eta Saribari taldea ezagutzen nuen bertan. Umeendako antezlanak egiten zituen. Nire lehen esperientzia talde honekin izan nuen. Halako batean obra baterako deitu zidaten eta ordutik aurrera profesional modura jarraitzen dut.

• Berezko bokazioa eduki behar da antzerkirako?

Berezko bokazioa bakarrik ez da, aktore bat denboraz eta praktikaz egiten da. Antzerkian zure pertsonai horretan sinistu eta bizi behar duzu.

• Aktore edo antzezle lana duzu gurago?

Desberdinak dira baina antzerkia gehiago gustatzen zait. Antzerkia biziagoa da, zuzenagoa, txaloak, barreak... Telebista hotzagoa da.

• Nola betetzen da zure egun arrunt bat?

Boladak izaten dira. Orain esaterako oso lanpetuta nabil, “Jaun eta jabe” teleseriea dela eta. Goizean gidoia hartu eta arratsaldean grabaketa lanak egiten ditugu.

• Non grabatzen da “Jaun eta jabe”?

Galdakaon.

• Zer da errazagoa lehendakari izatea ala Jose Ramon Soroiz?

Jose Ramon Soroiz duda barik. Ez nuke lehendakariaren larrutan egon nahi.

• Antzeztan dituzun pertsonaien izakerak badu zureaz antzik?

Ez, ez dute zerikusirik, ni askoz ere lotsatiagoa eta ixilagoa naiz.

• Antzerkitik bizi daiteke gaur egun?

Zaila da. Antzerki onak eta emanaldi asko egin behar dituzu. Telebistak diru gehiago ematen du.

• Zer iruditu zaizu gure herriko publikoa?

Oso ona. Gustora aritu gara.

• Zure hobbiak?

Itsasoa, irakurtzea... pertsona lasaia naiz.



Irakurtzeko liburuak



Titulua:

Nola bizi, zazpi bizi

Idazlea:

Yolanda Arrieta

Argitaletxea:

Desclée de Brouwer, 1996

(Epotxak eta erraldoiak)

Liburu honetan Tuska izeneko katu batek bere bizitza kontatuko digu bere jaiotzetik hasi eta aita bihurtu arte. Liburu bizirik jarraitzeko aholku modura antolatuta dago; hau da kapitulo bakoitzak aholku bat darama izenburu bezala eta katuak aholku horri jarraituz bizi dira. Aholku hauek ez katuentzat bakarrik, gizakiondako ere oso baliagarri suertatu daitezke. Azken batetan Yolanda bizitzaren etenik gabeko jirabirak erakusten dizkigu, bizitzak beti aurrera jarraitzen duela. Ipuin polita da, zortzi urtetik aurrera irakurtzeko aproposa eta entretenigarria.

✍ Joseba Lopez de Armentia

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa

Tfnoa: 79 24 58

ARETXABAETA

BERGARA



Abenduak 13...

ERAKUSKETA

Bergarako margolarien erakusketa. Kultur etxean.

Abenduak 30 urtarrilak 12

ERAKUSKETA

Bergarako eskultoreen erakusketa. Kultur etxean.

OÑATI



Abenduak 27...

OMENALDIA ETA ERAKUSKETA


Anton Maiztegi pintoreari omenaldia eta erakusketa. Udaletxeko areto nagusian.

Urtarrilak 3, 4

UMEENDAKO PARKEA

Kiroldegian goiz eta arratsalde, jolas eta aparatu mekanikoak. Musika, ludoteka tailerrak. Sarrera: 250 pezeta.

ARRASATE



Abenduak 20

KONTZERTUA

BENITO LERTXUNDI. Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian. Sarrerak aurrez 800 pezeta salgai Biona eta Kajoi tabernetan eta Hire liburutendan. Takilan 1000 pezeta. Benitoren batera Anaitz taldea ere izango da.

Abenduak 22 domeka

SANTAMASAK

Fruta, barazki, kanoi eta ardi gazta lehiaketa. Gaueko 11etan Maixa eta Itziar.

BERTSO SAIOA

Amaia antzokian, arratsaldeko 7,30etan. Berfolaria **Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Jose Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Jon Sarasua.** Gai jartzailea: **Danel Goikolea.**

Abenduak 21, 24

LIBURU ETA DISKA AZOKA

ARETXAZOKA

LANA

- Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86.
- Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsalde edo gauz. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

- Industrialdean (B-3) kokatzen den Robber Lan S. Coop-ek jendea behar du lanerako. FP2 edo antzekoa eskatzen da eta gehienez orain 3 urte ikasketak bukatuta izatea. 16 ordu asteen. Interesatuok bertara azaldu.

ETXEBIZITZA

- Pisua salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdiaren eta arratsaldean).

- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.

- Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

- Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

BESTELAKOAK

- Azaroaren 4an erlojua galdu nuen Almenetik Aretxabaletara bidean. Korrea berdea du eta hosto batzuk ditu esferan. Telefonoa: 79 85 74.
- Seat Ronda SS-U salgai: 1460 cm³ eta 75 CVkoa egoera onean. 100.000 pezeta. Tfnoa: 79 15 96.
- Neska frantsesa klase partikularrak emateko prest Bergaran. Estefaniaz galdetu. Tfnoa: 76 27 16 goizeko 9etatik 11ak arte.

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Abenduak 19 eguena

BERBARI HITZARMENA

Arratsaldeko 7etan izango da Loramendiren lokalean.

Abenduak 20 eguakotxa

KONTZERTUA

Leizarra musika eskolako ikasleak.
Arratsaldeko 5,30etan Andra Mari parrokian.

Abenduak 21 zapatua

KONTZERTUA

Aretxabaletako gaztetxoan eta **akordeoi orkestran** eskutik arratsaldeko 8,30etan Aretxabaletako parrokian.

Abenduak 22, 23, 24

LIBURU AZOKA

Loramendiren lokalean. **Loramendi Elkarreak** antolatuta. Goizez 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeaz 6etatik 9etara. Abenduaren 24an goizez bakarrik.

Abenduak 23 urtarrilak 3

ERAKUSKETA

ESKULANEN ERAKUSKETA. Euskal txokoan astegunetan 6etatik 8etara eta astebukaeretan 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8,30etara.

Abenduak 24 martizena

OLENTZERO

Arratsaldeko 6,30etan irtengo da kiroletxetik.

Abenduak 25 eguaztena

KONTZERTUA

MARIATXEN SOPRANOA. Piano eta koruaz lagundurik. Arratsaldeko 7etan Andra Mari parrokian.

Abenduak 27 eguakotxa

UMEENDAKO PARKEA

Umeendako parkea Iturrigorri frontoian. Goizeko 11etatik ordu 1etara bitartean eta arratsaldeko 3retatik 7etara bitartean.

Abenduak 29 domeka

LEIXARGARATEKO ATERPETXEAREN 25. URTEURRENA

Bertara inguratzen direnendako luntxa egongo da.

KONTZERTUA

KATIUSKA (P. SOLOZABAL) OPERETA.
Arratsaldeko 7etan Andra Mari parrokian.

Abenduak 25 urtarrilak 1

ERAKUSKETA

UDAKo 50. urteurrena ospatzen dela eta Murruxiko eta Zاراia mendi taldeen eskutik **mendiko argazkien** erakusketa ikusgai egongo da Loramendiren lokalean.

Abenduak 31 martizena

BIZAR ZURI

Arratsaldeko 6,30etan.

Urtarrilak 2 eguena

BILBOKO PIN-ERA IRTEERA

Ortzadar Atsedean taldearen eskutik Bilboko Pin-era irteera. Informazio gehiago 79 01 84 telefonoan.

Urtarrilak 5 domeka

ERREGA KABALGATA

Arratsaldeko 6,30etan.

Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 0970
• Murruxiko M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otorora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETAKO

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

1997

MAVERICK


4x4



Espazioa eta erosatasuna.



Air-Bag.



125 zaldiko Turbo Diesela.

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • Tfnoak: 79 07 44 / 54 • ARRASATE

